

Abarrak

GORKA BEREZIARTUA

E-pistola bat idatziko dut, norbaitek erantzun dezan

GENERO EPISTOLARRA (gure arteko hizkeran, gutun-elkartrukea) menostua eta zokoratua izan da urtetan, baina hala ere, ezagun samar bihurtu dira idazle batzuek elkarri urrunetik urrunera bidalitako mezu sortak. Rainer Maria Rilke, adibidez: *Poeta gazte bati idatzia* (*Jakinek duela zenbait urte euskaraz argitaratua*) da haren obra ezagunenetakoa, eta ez da hamar gutunen bilduma besterik. Sonatuak dira Flaubertek Turgenevi idatzi zizkion kartak, baita Voltaire-enak ere (23.000 gutun inguru idatzi omen zituen azken aldiz etzan aurretik; XVIII. mendeko *recordmana* dugu, inondik ere).

Gauza batean desberdintzen dira letra-juntatzaile horiek eta gaur egungo idazleak. Haiek, papera eta luma teknologia bakar, tentuz aukeratu behar zuten esaldi bakoitza orria zikin-belztuta bidaliko ez bazuten. Eta esaldi bakoitzaren izaera definitibo horrek bermatuko zuen testuaren kalitatea editorialentzat.

Horrek behar du izan ze, gainontzean, ez dut ulertzen. Zaila egiten zait konprenitzen, nola XXI. mendean sartuta, oraindik eskuz edo idazmakinez eskribitu ziren gutunen bildumak diren lehengai nagusi genero epistolarrean. Duela gutxi kaleratu da Saul Bellowren korrespondentzia, berbarako. Paperean idatzi eta posta arruntez bidalitako gutunak denak. Eta ez dut esaten gaizki dagoenik, baina... ez al du horrek ofizioaren irudi zaharkitu samarra eskaintzen? Batetik, idazlea fianbre bihurtu den arte ez dira publikatzen gutun-bildumak. Hildakoen genero literario bihurtzen da. Aiton-amonen egiletza soilik onartzen duena.

Bestetik, absurdua da. Munduak, posta elektronikoa iritsi baino lehen, ez zuen amestu ere egingo gaur egungo testu produkzioarekin. Eta idazleek, gehienak



ez baitira amishak, posta elektronikoa erabiltzen dute elkarrekin komunikatzeko.

Zergatik ez da hori material argitaragarria? Zergatik daude mezu horiek Gmail-en zaborrontziren batean hiltzera kondenatuta? Berdin Facebook-eko mezu laburrak, Twitterrekoak... Antologia dotoretarako emango luketela uste dut. Eta gainera ezagutzen dut idazle bat baino gehiago plataforma horietan idazten aski iaioa.

Saiakerak egin dira euskaraz, blogetako mezuak paperean publikatzeko. Hor daude, urrutirago joan gabe, Markos Zapiainen *Talatik tiroka* edo Xabier Mendiguren Elizegik blogean idatzi zituen testuen bilduma. Baina ni behintzat, zain nago editore bipilen batek noiz argitaratuko dituen idazleekin huntza eta hartaz trukatzeko dituen e-postak. Zenbait idazleren Facebook-eko mezuak ere gustura leituko nituzke edizio txukun batean emanez gero. Aforismo-bilduma dotorea lirakeke. Edo, erabil dezagun garai hauetako terminologia eta dei diezaiogun e-forismo. ■

ellauri
HOTELA

Natura sentitu

Landa Turismoa
Enpresa Zerbitzuak

Altzusta 38, 48144 ZEANURI | +34 946 317 888 | ellauri.com